

osatu/berri

72. zenbakia
2024ko uztaila

Eusle metodologiaren bidez,
euskara indartzen



Osakidetza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD



6 EUSKARA OSAKIDETZAN II



8 ADITUAK



12 EMAKUMEA II



16 OSASUNTU BIZI

2 _AURKIBIDEA

3 _ARESTIAN

4-5 _EUSKARA OSAKIDETZAN
Itziar Echevarria Matia • Pediatra
Miren Crespo Gonzalez • Erizaina

6-7 _EUSKARA OSAKIDETZAN II
Dokumentuak itzultzeko eta berrikusteko protokoloa
ezinbesteko zutabe bat da III. euskara-planean

8-9 _ADITUAK
Anaïansi Hernandez • San Eloy Ospitaleko
Endoskopia Digestiboko Unitateko burua

10-11 _EMAKUMEA
Emakume ikertzaileak, erreferente

12-13 _EMAKUMEA II
Miren Mujika Garate • Erizaina

14-15 _UNIBERTSITATETIK
KGNZ, haur euskaldunen hizkuntza-garapenaren
jarraipena egiteko tresna

16-17 _OSASUNTU BIZI
Eguzkiak onurak ditu, baina kalteak ere asko


18 _JAKINBIDE
Adimen urritasuna

19 _DENBORA-PASAK / ESTILO LIBURUAN BARN

Erdian...


tiitatxo ren aholkuak

Liburuak: www.liburutegiak.euskadi.eus



HABE
KANBODIAKO
ENBAXADA
Zadie Smith; Garazi
Ugalderen itzulpena

Fatou etorkina da, hainbat herrialdetan bizi izan dena Londresera joan aurretik. Neskame ari da etxe batean lanean. Bere aisialdiko denbora igeriketaren eta bere lagun Andrewrekin dituen hitzorduen artean banatzen du. Hainbat gairi buruzko elkarrizketak ditu harekin: erlijioa, arrazakeria... Itxura ahulekoa bada ere, oztipoen aurrean hautsi ez den emakumea da Fatou; egokitu zaion patuari amore emanda, ez du inoiz la-saitasuna galtzen.



HABE
19 KAMERA
Jon Arretxe

Trama paralelo batzuek osatzen dute umorea eta gordintasuna konbinatzen dituen nobela beltz hau: Palankako klub bateko prezio susmagarriak, trafikatzai-leen arteko istiluak, adin txikiko prostituta baten desagerpena, kaputxadun talde baten jipoi eta hilketak. Dena dela, nobelako ardatz nagusia Touré da, Bilboko San Frantzisko auzoan bizi den etorkin afrikarra. Ogibidea bilatzera behartuta, gezurrezko igarle gisa saiatuko da lehenik eta, pixkanaka, kasu eta proposamen bitxiak sortzen joango zaizkio. Hemeretzi kamerak kontrolatzen dituzte Bilbon San Frantzisko auzoko jendearen ibilerak, bertan gertatzen baita eleberri honen ekintza.



Elkar
BICHTA ÉDER
Eneko Bidegain

Gaur kazetan ari da Eñaut Oihenart, urtetan Euskal Herriatik urrun ibili ondotik, fisikoki nahiz gogotik. Xalbat Barnetxe laborari eta militante zailduak ohartarazi du, isilpean, euskal kostako jauregi abandonatu batean badela asmo ezkuturen bat, eta Eñaut ikertzen hasiko da zer ote den eraikitzaile-promotoreak eta tokiko agintariak lotzen dituen negozio ilun hori. Théodore Vermandois azken biztanlea izan duen jauregi horren historiak biltzen ditu: Nafarroako erresuma ahanztzia eta Frantziako Iraultza, II. Mundu Gerra eta Aljeriaren independentziakoa, handikien familia baten gainbehera eta Lapurdiko euskaldunen ezinbizia.




HABE
WANTED:
ERRETRATU
ODOLTSUA
David Boriau; Miel A.
Elustondoren itzulpena

1877. Dull cheyene gazteak bere tribuaren sarraskia mendekatu nahi du. Mendebalde basatian barrena dabil, bere mentore Oscar Carjat argazkilari nomadarekin batera. Herriz herri dabilta, tokian tokiko agintarientzat lanean, bidelapurren arrastoari segituz eta lekukoei deklarazioak hartuz. Dull-ek, aurpegiak marrazteko talentu handia duenez, marra soil batzuk egin eta "Bila" afixetako irudiak egiten ditu. Gainera, Dullen lapitzak botere ezohiko bat ere badu bere baitan gordea, bere arbasoen ondarea...



Elkar
DEI GALDU BAT
Idoia Garzes
Aldazabal

Aminata naiz, hamasei urte ditut eta duela urtebete hasi nuen bidaia hau. Entzuten ari bazatzaizkit, telefono hau jaso duzun horri, eskatzen dizut, mesedez, familiari nire berri emateko. Horix itsasok hondartzan botila batean topatutako mezua. Telefono batean, adinkide duen Amiren dei etsia. Oporretako hondartza zoragarri batean, botila batean gordeta, itsasoan galdutako bizitza baten istorioa: testamentu bat, erregu bat.



HABE
EUSKARARI
BURUZKO 2023KO
BIBLIOGRAFIA
HAUTATUA

Bibliografia hau HADE Liburutegiak egindako aukeraketa baten emaitza da, kontuan hartuta Liburutegiak jorratzen duen espezializazio eremua eta euskararen didaktikari, euskararen alderdi psikologikoei eta Euskal Herriko egoera soziolinguistikoari egiten dion jarraipen estua. Gida hau kontsultatzen duenak bertan topatuko ditu:

- Euskararen eta Euskal Herriaren egoera soziolinguistikoa aztertzen dituzten lanen erreferentziak.
- Euskararen alderdi didaktiko nahiz psikologikoak aztertzen dituzten lanen erreferentziak.
- Euskal Herriko hezkuntza ereduak, hizkuntzei dagokienean, aztertzen dituzten lanen erreferentziak.
- Euskara ikasteko materialak.

OSAKIDETZA. Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz.
Tel.: 945 00 63 43 • osatuberri@osakidetza.eus

Erredakzio-kontseilua:
Gontzal Lopez eta Amaia Beitia.
Egiletza, banaketa eta koordinazio lanak:
Bidera Zerbitzuak (Berria Taldea).
Tirada: 5.000 ale.
Lege-gordailua: SS 1472-2011 / ISSN 2254-450X.



Harpidetu zaitez!

Jaso **Osatuberri**ren buletin digitala zure posta elektronikoa, hamabostean behin.
osatuberri@osakidetza.eus

“Pixkanaka ohitu egin gara euskaraz aritzera, eta jada gure errutinaren parte da”

Biko Eusle metodologiaren bidez, lanean beren hizkuntza-ohiturak aldatzea lortu dute Osakidetzako Miren Crespo erizainak eta Itziar Echevarria pediatrik: euskaraz aritzen dira elkarrekin orain. Azaldu dute uste baino errazagoa egin zaiela proiektuan parte hartzea. Oso pozik daude eskaini zaien aukerarekin eta lortutako emaitzarekin.



ITZIAR ECHEVARRIA MATIA
Pediatra

MIREN CRESPO GONZALEZ
Erizaina

Zer da EUSLE/ BIKO EUSLE?

Asko dira euskaraz jakin bai baina lanean euskaraz egitera ohitzeko bultzadatzat bat behar duten langileak. Asmo horrekin jarri ziren martxan 2017an profesionalen hizkuntza-ohituretan eragiteko lehenbiziko esperientzia pilotuak (*Eusle, Biko Eusle* eta *Ulerizketa metodologiak*), Soziolinguistika Klusterraren laguntzaz.

Honela funtzionatzen dute: talde naturalak aukeratzen dira, hau da, zerbitzu batean elkarrekin lan egin eta eguneroko harremana duten lankideek osatutakoak. Talde txikietan egiten denean, bi-hiru lagun, *Biko Eusle* izena hartzen du; hiru lankide baino gehiago direnean, *Eusle*.

Talde bakoitzak *Eusleak* izendatzen ditu, hauen egitekoa taldekide guztiekin epe jakin batean (hilabete bat edo bi) euskaraz egitea da. Beraien dute rol aktiboa. Gainerako kideek *Eusleak* babestu beharko dute, berari euskaraz eginez edo, gutxienez, haren jarduna errespetatuz.

Metodologiaren helburua da euskararen erabilera handitzea, betiere kontuan izanda parte-hartzea borondatezkoa dela.

Azken finean, modu neurtuan egindako *Euskaraldiaren* antzeko ekimena da.

Itziar: Bai. Bi pertsona bakarrik izateak ere lagundu duela uste dut. Gainera, ahoz euskaraz aritzeaz gain, euskaraz idazten ere hasi gara. Sakelako telefonoan, adibidez, Whatsapp bidez euskarazko mezuak bidaltzeko ohitura hartu dugu orain.

Olarizuko osasun-zentroan egiten duzue lan. Lankideek ere euskaraz egiten dute? Haiek ere hartu dute parte Euslen?

Miren: Uste dut bakarrak izan garela orain arte. Hala ere, beste lankide batzuekin ere euskaraz egiten dugu beti, baina beste zenbaitekin, aldiz, gaztelaniaz, ez dakitelako euskaraz edo ez daukatelako hainbesteko konfiantza euskaraz aritzeko.

Zuen kasuan, lanetik kanpo ere hizkuntza-ohiturak aldatzeko balio izan dizue?

Itziar: Ni, adibidez, ahizparekin euskaraz egiten saiatzen naiz orain.

Miren: Lehen ere euskaraz hitz egiten nuen jendearekin euskaraz egiten dut orain. Gertatzen dena da taldean baten batek ez baldin badaki euskaraz, gaztelaniara jotzen dugula berehala, bera moldatu beharrean. Zaila da halako ohiturak aldatzea.

Gomendatuko zenieke beste lankide batzuei Biko Eusle proiektua?

Itziar: Bai. Asko laguntzen du. Inportantea da partaideak langile finkoak izatea, hau da, beti elkarrekin lan egitea. Jende desberdinarekin lan egiten baduzu, zailtasun gehiago dituzu ohitura horrekin jarraitzeko.

«DINAMIKA SINPLEA IZATEAK ERRAZTU EGITEN DU HELBURUA BETETZEA»

Itziar Echevarria

garenez, ia guraso gehienak gazteak dira, eta badakite euskaraz. Orduan, normalean, umeei euskaraz egiteko ohitura daukate, hemengoak izanda. Atzeritarren kasuan, zailtasun gehiago izaten dituzte, baina gero eta euskaldun gehiago etortzen dira kontsultara. **Itziar:** Nahiz eta atzeritarrak izan, esaten dizute haurrak eskolan euskaraz egiten duenez nahiago dutela zuk haurrari euskaraz egitea. Izan ere, haien ama-hizkuntza ez da gaztelania, eta hobeto dakite euskaraz gaztelaniaz baino.

Lanetik kanpo gaztelaniaz egiten duzue ingurukoekin?

Miren: Gehienetan, bai. Batzuekin

euskaraz aritzeko ohitura dut, baina gutxitan egiten dugu.

Itziar: Lagunekin gaztelaniaz egiten dut beti. Familiako batzuekin —lehengusinarekin, adibidez—, euskaraz egiten dut batzuetan, baina familia hurbilenarekin beti gaztelaniaz.

Eta kostatu egin zitzaizuen lau aste horietan zuen artean beti euskaraz egitea?

Itziar: Metodologiarekin hasi aurreko bi aste horietan oso arraroa egiten zitzaigun euskaraz egitea. Orain tarteka baliteke nahi gabe gaztelaniaz hasia esaldiren bat, baina konturatu bezain pronto euskarara jotzen dugu berriro.

Miren: Lehentxeago euskaraz hitz egiten hasi ginenez, dinamika iraun zuen lau asteetan ez zitzaigun hainbeste kostatu, baina hasieran bai. Batez ere, astebururik bueltan lanean hasten garenean kostatzen zaigu ohitura hori hartzea berriro, baina pixkanaka ohitu egin gara. Errutina modura hartu dugu euskaraz egitea.

Dinamika amaituta, nolako balorazioa egiten duzue oro har esperientziatziaz eta metodologiak?

Itziar: Oso balorazio ona egiten dugu. Azken finean, nahiko dinamika sinplea da, eta, hain sinplea denez, horrek erraztu egiten du helburua betetzea.

Miren: Hasiera batean, proiektua gomendatu zigutenean, pentsatzen genuen zailtasun gehiago izango genituela, baina hain erraza izateak asko laguntzen du.

Uste baino errazago, beraz.

Miren: Biak egoera berdinean geunden, soslai berdina genuen euskarari dago-kionez, eta hala erraztasun gehiago izan ditugu proiektua aurrera eramateko.

«FAMILIEK EUSKARAZ ENTZUTEN GAITUZTENEAN, EUSKARAZ EGITEN DIGUTE ZUZENEAN; HORRETAN ERE LAGUNDU DU PROIEKTUAK»
Miren Crespo

Nola izan zenuten Biko Eusleren dinamikaren berri? Nolatan erabaki zenuten parte hartzea?

Itziar: Osakidetzaren barruan IVAPeko formakuntzak antolatzen dituenari deitu nion, galdetzeko ea zer egin nezakeen euskara hobetzeko, eta Eusleren proiektuari buruz hitz egin zidan. Hala, Arabako ESlko Euskara Zerbitzuarekin jarri ginen harremanetan, informazioa jasotzeko eta dena martxan jartzeko.

Miren: Itziarren bidez ezagutu nuen Eusle proiektua. Euskara maila hobetu nahi zuenez, horren berri eman zioten, eta, metodologia azaltzean, biok animatu ginen parte hartzera.

Bi edo hiru lagun artean egiten da metodologia hori, eta, zuen kasuan, biok izan zarete partaideak. Zertan datza zehazki?

Miren: Dinamika nola izango zen azaldu zigutenean, esan ziguten lau asteko proiektu bat zela, eta aste bakoitzean gutako batek Eusle edo nolabait dinamikaren arduraduna izan behar zuela. Eusle rola duen pertsonak euskaraz egin behar du beti, eta besteak lagundu egin behar dio. Dena den, lau aste horiek

hasi aurretik ere hasi ginen gure hizkuntza ohiturak aldatzen pixkanaka...

Itziar: Metodologiaren berri izan genuenetik, hasi baino bi aste lehenago edo, gure artean euskaraz hitz egiten hasi ginen jada. Aurretik, gaztelaniaz egiten genuen beti gure artean. Proiektu polita iruditu zitzaigun, eta bion artean euskaraz egiten hasteko aukera on bat. Gainera, kontsultan bertan euskara sustatzeko aukera bat ere bazen; izan ere, familiek gu euskaraz entzuten gaituztenean, haiek ere euskaraz egitera animatzen dira.

Miren: Beharbada ez dakite zerbitzua euskaraz jasotzeko aukera dutela, zerbitzua zein hizkuntzatan jaso nahi duten aukeratu dezaketela. Azkenean, euskaraz entzuten gaituztenean, zuzenean euskaraz egiten digute, eta horretarako ere lagundu du metodologia honek.

Uste duzue pazienteek eskertzen dutela zerbitzua gaztelaniaz nahiz euskaraz jasotzeko aukera izatea?

Itziar: Bai. Azken finean, batzuk erosoago sentitzen dira euskaraz, gaztelaniaz baino.

Miren: Gu, gainera, pediatrian aritzen



Natalia Elvira García,
Ainhoa Mentxaka Etxebarria
eta Roberto Manjón Lozoya.

“Dokumentuak itzultzeko eta berrikusteko protokoloa ezinbesteko zutabe bat da III. euskara-planean”

Itzulpenak lantzeko protokolo bat sortu du Osakidetza. Izaera korporatiboa duen lehendabizikoa da; hau da, erakunde osoarentzat baliagarria den proiektua ondu dute. Besteak beste, Natalia Elvira García, Ainhoa Mentxaka Etxebarria eta Roberto Manjón Lozoya aritu dira lan horretan, eta hauxe nabarmendu dute: «Itzulpen protokoloak lehen ere izan dira Osakidetzako zenbait zerbitzu-erakundetan, baina hau, euskara-zerbitzuekin ez ezik, Zuzendaritza Nagusiarekin eta Osakidetzako eta Osasun Saileko komunikazio-kabineteekin ere landu dugu. Protokolo ofiziala izanda, jokabide berbera eskatzen zaie erakunde guztiei, eta babes handiagoa ematen die itzultzaileei».

Osakidetza testuak itzultzeko eta berrikusteko proiektua abiatu da. Zertan datza?

Ainhoa: Osakidetzan aspaldidanik egiten ditugu itzulpenak, normalizazioaren bidean oraindik beharra dagoelako. Hainbat zerbitzu-erakunde osatzen dute Osakidetzak, eta haietako batzuetan itzulpen-protokoloa dute. Orain artean, ordea, ez da protokolo korporatiborik egon, eta bakoitzak jokatu du ahal izan duen moduan, bere irizpideekin. Bateratze-lan bat egin dugu, guztiek berdin jokatzeko. Aldi berean, oso garrantzitsua iruditzen zaigu Osakidetzan dokumentuak sortzen dituen jendeak ulertzea dokumentazioa bere ardura dela, ez soilik gaztelaniazko bertsioa, baita euskarazkoa ere.

Zer-nolako oinarriak ditu protokoloak?

Ainhoa: Aurrez erakunde batzuetan egondako protokoloak —Bilbo-Basurtuko ESIarena, esaterako— hartu ditugu oinarri modura, oso egokia iruditu zaigulako horietan azaltzen dena. Aipatutako protokoloak dio dokumentazio guztiak ez duela elebiduna izan behar. Askotan, ez dugu argi izaten zer egon daitekeen euskaraz soilik, zer gaztelaniaz eta zerk izan behar duen elebiduna. Protokolo berriak ere hasieran hori zehazten du: itzulpen-beharra dagoenean, itzulpen-eskaera horiek nolako baldintzatan egin behar diren, dena ongi eta zuzen egin dadin.

Roberto: Osakidetzako erakunde guztietan dago inork ezagutzen ez duen lege bat. Inork ezagutzen ez badu, horrek esan nahi du ez dagoela, baina mundu guztiak uste du gauza guztiek legez euskaraz egon behar dutela. Legean ez dago jasota testu guztiek euskaraz idatzita egon behar dutenik, eta normalizazio-planean jasota dagoena da unitateek euskaraz egin behar dituztela testu batzuk, arian-arian, era progresiboan.

Natalia: Azken urteetako arazoa hortxe egon da. Dokumentazio asko itzuli da, euskarari bultzada bat emateko eta dokumentazio elebiduna izateko. Iritsi gara momentu batera non dena itzultzerantz bidaltzen den eta oso gutxi sortzen den euskaraz. Hortik datoz protokoloaren garrantzia eta beharra. Itzulpenak lan-karga izugarria dira, eta horrek ez du zentzurik hizkuntza-normalizazioa sustatzen duen erakunde batean. Hau da, gero eta profesional gehiagok dakite euskaraz, gero eta gehiagok dute hizkuntza-eskakizuna, baina, orokorrean, testuak gaztelaniaz sortzen dira. Hirugarren euskara-planaren ardatz nagusietako bat lan-hizkuntza bultzatzea izanda, Euskara Zerbitzu Korporatiboko itzulpen-atalean argi ikusi genuen protokoloaren beharra, baita protokolo horrek korporatiboa izan behar zuela ere, profesional guztiek uler dezaten helburua ez dela dena euskaraz eta gaztelaniaz edukitzea, euskaraz lan egitea baizik. Hori dago oinarrian.

Zer zehazten du protokoloak?

Roberto: Protokoloa euskara-planaren ezinbesteko zutabe bat da. Unitateetan euskaraz gero eta gehiago egin behar bada, horrela izateko arautu egin behar da zer egin behar den euskaraz, zer ez, nork egin behar duen, nolako laguntza behar duen, noiz eta nola bidali behar diren testuak itzultzerantz, noiz eta nola berrikusterantz... Hori guztia biltzen du protokoloak. Euskarazko testuen ardura guztia itzultzaileena bada, ez dugu normalizazio-planik behar.

Ainhoa: Dokumentuan jasota daude itzulpen-prozesuan kontuan hartzeko alderdiak eta egin beharreko urratsak, eta, horretarako, erakunde guztietako beharrianak

aztertu ditugu. Guztiontzako dokumentua sortzen saiatu gara, gero bakoitzak jakin dezan nola jokatu behar duen.

Protokoloak euskararen erabilera sustatzeko balio du?

Natalia: Babesa ematen du, batez ere. Normalizazio-prozesuan sekulako aurrera-pausoa da, testuak sortzeak eta itzultzeak ez baitute zerikusirik. Orain arte, euskara-teknikariak aritu dira itzulpen-lanetan, baina lan-karga izugarria pilatzen zaie dokumentazio guztia gaztelaniaz sortzen bada. Hortaz, protokoloa ezinbestekoa da gauzak orekatzeko eta euskara-planean aurrera egiteko.

Roberto: Protokoloaren bertute handi bat da zelan uztartzen duen euskaraz sortzea eta itzulpengintza; azaltzen du unitate batek zein kasutan behar duen laguntza dokumentuak sortzeko, nola berrikusi behar dituen, zein kasutan lagundu behar dion itzulpen-zerbitzuak...

Natalia: Osakidetzan dokumentu asko sortzen dira: gutunak, jarraibide-orriak, ebazpenak, baimen informatuak... Batzuek beti beharko dute euskara-teknikari baten edo itzultzaile baten laguntza, baina beste batzuek ez. Protokoloak hori oso ondo zehaztu du, eta horrek euskararen erabilera zabaltzen lagunduko du.

Protokoloan hiru aukera bereizten dira.

Ainhoa: Osakidetzako unitateei proposatzen zaie beren dokumentazioaren lanketa egin ostean azter dezatela zer errepikatzen den edo dokumentua estandarizaturik ote dagoen. Izan ere, ahal dela beti saiatu behar dugu dokumentu errepikakor horiek txantilo bihurtzen. Horretarako aukerarik ez badago, eta unitatean bigarren hizkuntza-eskakizunetik gorakoa duten profesionalak badaude, edo itzultzaile neuronalak erabili dezaketenak, dokumentua sortu ostean euskara-zerbitzura bidal dezakete, berrikusteko. Eta hirugarren aukera litzateke zuzenean itzulpen-eskaera egitea, unitatean ez dagoelako gaitasun linguistikorik edo oso protokolo tekniko delako, edo inpaktu handiko dokumentua delako. Horiek dira hiru aukerak: ahal denean eredu elebidunak sortzea; euskaraz sortzea eta berrikusterantz bidaltzea; eta itzulpen-eskaera egitea.

Osakidetzako profesionalek nolako makuluak dituzte dokumentuak sortzeko garaian?

Natalia: Zerbitzu-erakundeetan gauza asko planteatzen ari dira: euskaraz idazteko prestakuntza, terminologiaren inguruko ikastaroak... Uste dut euskara-teknikariak horretan laguntzeko prest daudela. Orain arte ordu asko eman dituzte itzultzen, eta normalizazioko hainbat egitasmo bigarren

mailan geratu dira. Hortaz, aurrera egiteko, teknikariak prest daude testu elebidunak sortzen edo itzulpenak egiten laguntzeko, aurrerantzean lan horiek unitateetan egiteko xedez. Zumarragako Ospitalearen kasua ezagutzen dut: prestakuntza-saio batzuk emateko eskatu dute. Ahalduntze beharra badago, horixe falta dute profesional askok, besterik ez, ohiturak aldatzea adibidez. Metodologia pila bat dago horretarako, eta protokolo hau beste tresna bat da bide horretan. Askotan, kontua ez da ez dutela nahi, modu batera ohitu direla baizik.

Ainhoa: Horren harira, Estilo-liburua argitaratu genuen 2021ean, eta irizpide asko finkatzen ditu. Gero, eranskin batzuetan terminologia asko sartu genuen, baina jendeak ez daki hor dagoela. Gure lana izango da hori zabaltzea eta erabiltzen irakastea.

Aurrez azaldu duzue, Osakidetzako dokumentu guztiek ez dute zertan elebidunak izan. Zer irizpideren arabera antolatzen da hori?

Natalia: Norentzat den, batez ere. Adibidez, bileren aktak oso agerikoak dira. Bilerak gaztelaniaz egiten bada, aktak ere gaztelaniaz; eta euskaraz egiten bada, euskaraz. Bilerak euskaraz egin bada, guztiek ulertzen dutelako da.

Roberto: Unitate batean gaztelania hutsean lan egiten bada, haien arteko lan-dokumentua ere hala izango da. Ez du zentzurik euskaraz erabiliko ez den dokumentu bat euskarara itzultzeak. Edo Osakidetzak urtean erosi dituen liburuen zerrenda, artxibategian gordeta edukitzea. Gaztelaniazko artikulua baten izenburua ere itzuli behar da? Osakidetzatik Espainiako Ministeriora bidali behar den dokumentua? Horiek ere bidali izan dizkigute itzultzerantz. Ez dauka zentzurik, eta gogoeta egin behar da: dokumentua Madrilerantz badoa, zertarako euskaratu? Lehen esan dugunez, existitzen ez den lege horrek bultzatuta egiten da hori. Zentzuz jokatzeko dago gakoa.

Ainhoa: Paziente batek erreklamazio bat euskaraz hutsean egin badu, erantzuna ere hala izan behar da; ez du zertan elebiduna izan. Berak hautu bat egin du, eta errespetatu egin behar da; hala diote, gainera, hainbat arau. Osakidetzan eta edonon, euskararen erabilera zenbat eta normalagoa, orduan eta itzulpen gutxiago. Prozesu horretan, itzulpenak euskararen normalizazio ezak sortutako hutsuneak bete behar ditu. Protokoloak argitu eta aratu nahi du hutsune horiek zeintzuk diren, eta metodo egokia ezarri, nahiz hutsuneak euskararen normalizazioaren alde eta ez kaltetan betetzeko, nahiz langile eta unitateei gero eta euskara gehiago erabiltzen laguntzeko.

«OINARRI OSO ONA
GENUELAKO ERABAKI
GENUEN ZIURTAGIRIA
LORTZEN SAIATZEA»

ANAIANSI HERNANDEZ

San Eloy Ospitaleko Endoskopia Digestiboko
Unitateko burua



“Prebentzioan inbertitu behar da”

Osakidetzako Barakaldo-Sestaoko ESIan, San Eloy Ospitaleko Endoskopia Digestiboko Unitateak bikaintasun ziurtagiria lortu du, Qualiscopia programaren barruan. Osakidetzan arlo horretan bikaintasuna lortu duen lehenengo unitatea izan da. Anaïnsi Hernandez saileko buruak nabarmendu du lantalde osoaren ahaleginari eta motibazioari esker lortu dutela aitortza, «lan transbertsala» egin dutelako.

Lehenengoak Osakidetzan erreko- nozimendu hau jasotzen; nola hartu zenuten albistea?

Poztasun handiarekin. Edonorentzat da atsegin kanpotik erreko nozimendua jasotzea; azken finean, egiten duzun lanari balioa emateko modu bat da. Dena den, aitorpena jaso aurretik ere, bagenekien artatzen genituen pazienteak pozik zeudela jasotzen zuten zerbitzuarekin, hala adierazten baitzigu gogobetetasun-inkestetan eta kontsultan.

Ni ospitale honetan lanean hasi aurretik, beste zentro batzuetan aritu nintzen, eta haietan guztietan ikusitakoak eta ikasitakoak ospitale honetan txertatzeak izugarri asetzen nau, inertzietan ez erortzeko eta etengabe hobetzeko bidea eman baitigu horrek. Eskualdeko ospitale bat gara, ospitale umil bat esan dezagun, eta egongo dira hemen egin ezin ditugun hainbat gauza, baina egiten duguna, kasu honetan miaketa probak, ahalik eta baldintzarik onenetan egiten saiatuko gara.

Ziurtagiria bultzada bat izango da horretarako, ezta?

Uste dut oso motibagarria dela. Gure lantaldea oso gaztea da, eta, ez garenez

ospitale unibertsitario bat, langileak aurretik ez dira izan hemen barruko mediku egoiliarak. Hori oso positiboa da, alde guztietako profesionalak etortzen baitira hona: Madrildik, Asturiastik, Granadatik... Ospitale askotako jakintzak jasotzen ditugu hala. Ziurtagiria jasotzeko oinarritzko baldintza asko betetzen genituela ikusteak aurrera egitera animatu gintuen, eta, hain zuzen, oinarri oso ona genuelako erabaki genuen ziurtagiria lortzen saiatzea; dagoeneko gure lana ondo egiten genuenez, are hobeto egitea zen helburua.

Zerk desberdintzen zaituztete gai- nerako zentroetatik?

Pazientearen ikuspuntutik, garrantzitsua iruditzen zait hark laguntzen diogula sentitzea. Osasunari lotutako edozein prozesutan denok sentitzen dugu beldurra. Kolonoskopia funtsezko tresna da koloneko eta ondesteko minbiziaren baheketa-programan positibo eman duen paziente baten zat. Baina beldurra diote probari, mina sentitzeari, minbizia izateari. Beraz, guk egindako hobekuntzetako bat izan da proba egin aurretik telefono-zenbaki bat ematea pazienteari, edozein zalan-tza izanez gero, guri deitzeko; erizain

batek erantzuten die zuzenean, eta, beharrezkoa bada, endoskopia egingo dion medikuak; nik dakidala, hori ez da beste inon egiten. Horrek lasaitasuna ematen die.

Ondoren, prozedura egin eta gero, informazioa ematen diegu; ez bakarrik proba egitean ikusi dugunaren inguruan, baizik eta hortik aurrera eman beharreko pausoei buruzko gida bat. Proban emaitza negatiboa baldin bada, esaten diegu ez dela beharrezkoa jarraipena egitea, baina, positiboa bada, kolonoskopiako emaitzaren arabera zirkuitu bat edo beste jartzen dugu martxan. Horrez gainera, gogobetetasun-inkesta bat ematen diegu, eta erantzunen arabera jakiten dugu zertan hobetu behar dugun. Oro har jendeak oso balorazio ona egiten du: % 99k positibotzat jotzen dute unitatean jasotako arreta, % 93k gogobetetze-maila orokorra 8 eta 10 arteko puntuazioarekin balioesten dute 1-10 eskalan, eta % 97k miaketa baldintza berberetan errepikatuko lukete.

Koloneko eta ondesteko minbizi- ren kasuan, nolako datuak dituzue?

Gaur egun, kolon eta ondesteko minbizia da ugariena Mendebaldean, eta bigarrena hilkortasunean. Kolonoskopiak, diagnostikoa ez ezik, prozesu terapeutikoa ere ahalbidetzen digu. Horrek eragina du kolon eta ondesteko minbiziaren intzidentzian eta hilkortasunean. Minbizi goiztiarrean % 90ekoa da biziraupena, eta aurreratueta, berriz, % 50-60koa. Baheketaren bidez, helburua da intzidentzia eta hilkortasuna gutxitzea, eta biak murriztu dira baheketa martxan jarri zenetik. Gure ESIan, baheketa-programa hasi zenetik (2011-2022 aldia), kasuen % 4,6an koloneko minbizia atzeman dugu; horietatik, % 70 I-II fasean, eta % 30 estadio aurreratueta. % 40, berriz, lesio aurreratuak izan dira. Guk tratatzen dugun lesioa *polipo adenomatosoa* deritzona da.

Koloneko eta ondesteko minbiziaren kasuan, badakizunez zer lesio eragiten duen, aurrea har diezaiokezu minbi-

ziari. Lesioak kolonoskopiaren bidez atzematen direnez, ezinbestekoa da prestateta optimoa izatea, lesio guztiak detektatzeko, eta, ondoren, ahalik eta ondoen tratatzeko eta konplikaziorik ez sortzeko. Edozein proba inbaditzailek konplikazioak izan ditzake, baina argi dago pertsona osasuntsu bati egiten diozunean neurri horiek optimizatu egin behar dituzula. Horregatik, garrantzi handia ematen diogu balorazio bat egiteari, saihestu daitekeen edozein arrisku minimizatzeke.

«BESTE TOKI BATZUETAN
IKASITAKOAK
INERTZIETAN EZ
ERORTZEKO ETA
ETENGABE HOBETZEKO
BIDEA EMATEN DIGU»

Nolako jendea artatzen duzue?

Gaur egun, koloneko eta ondesteko minbiziaren baheketa 50 eta 69 urte bitartekoentzat egiten da, eta parte-hartze tasa % 70ekoa da hemen, Espainiako Estatuko batez bestekotik gora. Dena den, lanean ari gara tarte hori 74 urtera arte luzatzeko. Izan ere, koloneko eta ondesteko minbizia edadetuek pairatzen dute gehienbat, 65-69 urteen artekoek batik bat. Baina gazteen artean ere ugari dira kasuak azken urteotan. Proba egiten duten gehienak emakumezkoak dira; badirudi gizonezkoek beldur gehixeago izaten dutela. Hala ere, gizonek minbizia edo lesio aurreratuak izateko arrisku handiagoa dute.

Askok beldurra sentitzen dutela aipatu duzu. Zer egin daiteke beldur hori galtzen laguntzeko edo kon- fiantza emateko?

Beldurra eta informazio-falta. Informazioa zabaltzeko kanpainak oso egokiak dira, baina, horretaz gain, garrantzitsua da jendea gustura geratzea egin duen probarekin, ondoren ahoz aho zabaltzen baitira iritzi horiek. Jendeak beldurra dio gaixotzeari, eta kolonoskopiak berme asko ematen ditu, eta hori da gaur egun eman dezakegun abantailarik handiena. Prebentzioan inbertitu behar da.

«GURE PAZIENTEEN
% 99K POSITIBOTZAT
JOTZEN DUTE
UNITATEAN JASOTAKO
ARRETA»



Ezkerretik hasita, Roser Martinez, Edurne Zapirain, Andrea Gabilondo eta Raquel Plata.

EMAKUME IKERTZAILEAK, ERREFERENTE

Osakidetzaren Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko (GOMS) Berdintasun Batzordeko kide dira Edurne Zapirain, Roser Martinez, Raquel Plata eta Andrea Gabilondo, ikerketa munduan arrasto sakona utzitako lau emakume ikertzaile. Azken urteotan zientzia munduan genero arrakala txikituz joan dela uste dute, baina oraindik ere gabeziak antzematen dituzte, hala nola denbora nahikoa izatea kontziliaziorako.

Zientziaren eta teknologiaren bilakaera gizonezkoen eskutik joan izan da betidanik oro har, edo, hobe esanda, gizonezkoek bereganatu izan dute aitortza nagusiki, haiek egindako ikerkuntzak izan baitira historiaren eredu eta oinarri. Era berean, emakumezkoen ahaleginak zapalduak eta isilduak izan dira urte askoan, apenas jaso duten aitortzarik gizonezkoekin alderatuta, eta oztopo eta erronka handiei egin behar izan diete aurre entzunak izateko eta

beren lanari balioa emateko. Alabaina, urteen poderioz errealitate hori aldatuz joan da, eta, nahiz eta oraindik ere maila berean ez izan, badira profesionalki diharduten emakumezko zientzialariak, gizartea bera ere ari baita pixkanaka horren inguruko aurreiritziak hausten eta emakumezkoen lanari balioa ematen. Erakunde publikoek ere gero eta apustu handiagoa egiten dute emakumezkoen lana aitortzearen alde; besteak beste, horren eredu da GOMS Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarearen barruan sortutako

Berdintasun Batzordea. Talde horren helburu nagusia da emakumezko eta gizonezko profesionalen arteko arrakala txikitzea, elkarlana sustatzea eta emakumezkoei merezi duten tokia ematea. Izan ere, batzordeko kideen hitzetan, «gizonek eta emakumeek zientzian elkarrekin eta modu orekatuan parte hartzeak asmo handiko helburuak lortzea ahalbidetzen du, gure gizartearen ezagutza beharrei erantzun hobe eta zuzenagoa emateaz gain». Edurne Zapirain, Roser Martinez, Raquel Plata eta Andrea Gabilondo gaur egun ikertzaile gisa jarduten duten emakumeetako lau dira, laurak Osasun Mentaleko eta Biogipuzkoako Arreta Psikiatrikoko ikerketa-taldeko kide. Gabilondo, gainera, GOMSeko ikerketa zuzendari izendatu dute aurten. Gai izan dira ikerketa proiektu propioak diseinatu eta garatzeko, galdera, zalantza edo kezka batetik abiatuta, eta, beren ahaleginari esker, inspirazio iturri bihurtu dira antzeko interesa duten langileentzat, Osakidetzaren barruan oso garrantzitsuak diren proiektu batzuen buru izatera iritsi baitziren.

INTERESAK BULTZATURIK
Halaber, sentitu izan duten jakin-minagatik eta lan egiteko gogoagatik izan ez balitz, ez litzukete lorpen horiek guztiak eskuratuko. Hala baieztatu du Gabilondok: «Jakin-mina da funtsezko motorra, eta hori guztiok badaukagula uste dut; has-teko helburu oso xumeak ezarri eta ikasiz joan behar da, egia bada ere, laguntzen duen ingurunerik gabe motibazioa desagertu egiten dela».

Ia bokazioz jardun dute laurak; Zapirain psikiatrak argi eta garbi izan du beti ikertu nahi zuena zela emakumearen osasun mentala jaiotza inguruko denboraldian. Izan ere, haren arabera, denbora tarte hori «psikopatologia bat lehenengoz edo berriz agertzeko zaurgarritasun aldia da amarentzat». Hala, 2010. urtean, lan klinikorako diziplina anitzeko talde bat sortu zuten GOMSen, eta Zapirain bera izan da talde horren buru harrezkero. 3 urte geroago, bidea urratzen jarraitu zuten, beste osasun zentro batzuetako emaginekin elkarlanean, eta lehenengo bottom-up ikerketa proiektua egin zuten. 2016 eta 2018 bitartean garatu zuten mugarri garrantzitsu bat izan zena: proiektu pilotu bat diseinatu zuten jaiotza inguruko etapan dauden emakumeen depresioa eta antsietatea goiz atzemateko eta horretaz arduratzeko, eta emaitza oso onak lortu zituzten. Amatasuna izena hartu zuen programa horrek, eta 2021etik GOMSeko OMZ guztietan ezarri zen.

Martinezen kasuan, berriz, patologia jakin batzuetan gaixotasun mentalaren

«GAUZAK ERRAZTU BEHAR DIZKIEGU INTERESA DUTEN PERTSONEI, GURE ERAKUNDEAN IKERKUNTZAREN KULTURA PIXKANAKA-PIXKANAKA SORTZEN SAIATZEKO»
Andrea Gabilondo

«DENBORAREN KUDEAKETA HOBETZEA ZEREGIN PROFESIONAL HORI AINTZATESTEKO MODUA IZANGO LITZATEKE»
Edurne Zapirain

«ERRAZTASUN GEHIAGO EGON BEHARKO LIRATEKE IKERKETA-JARDUERA AMATASUNAREKIN UZTARTZEKO»
Raquel Plata

«GENERO IKUSPEGIA GERO ETA GEHIAGO APLIKATZEN DA IKERKUNTZAN»
Roser Martinez

tratamendua hobetzea izan du xede nagusi. Haren ustez, baliabide gehiago jarri behar dira horiei aurre egiteko, hala nola eskizofreniari, nahasmendu bipolarri edo substantzien kontsumoaren ondoriozko nahasmenduei. Katalunian egin zituen mediku ikasketak, eta 2017an hasi zen GOMSen. Orain dela hiru urte Egune-ko Arreta Intentsiboko Unitatean (EAIU) hasi zen laguntza lanean, eta, azkenaldian, Biogipuzkoaren Osasun Mentala eta Arreta Psikiatrikoa aztertzeko ikerketa taldean dihardu. Bottom-up motako bi ikerketa proiektutan dabilta aurten buru-belarri: Egune-ko Arreta Intentsiboko Unitatean, batetik, eta EHU Euskal Herriko Unibertsitatearekin, bestetik. Proiektu horien ikertzaile nagusia da Martinez, eta 2023tik World association on Dual Disorders Elkartearen Batzorde Nazionalako kidea.



Haurren eta nerabeen egoera hobetzeko aritzen da lanean Plata. Unibertsitatean Terapia Okupazionala ikasi zuen, eta ikasketak abiatu bezain pronto jakin zuen osasun mentalaren arloan jardun nahi zuela. Orain dela hamar urte iritsi zen GOMSera, hain zuzen, Arreta Goiztiarreko Unitatera, Haur eta Nerabeen Psikiatria lantaldera. Orduan zabaldu zitzaizkion ikerketari heltzeko ateak, bottom-up proiektuen bidez. Beste erakunde batzuekin ere aritu da halako proiektutan, besteak beste, Nova Southeastern Universityrekin eta Universitat de Valènciarekin, eta beti haurren garapenean ardaztuta. Orain dela bi urte, beste erronka bati heldu zion: patologia mental bat duten amen ume-txoengan alarma seinaleen detekzioa ikertzen ari da.

DENBORA ETA KONTZILIAZIOA
Emakumeak zientzian aritu ahal izateko baldintzak hobetuz joan dira urteen

poderioz. Hala ere, lau ikertzaileek uste dute hobetu daitekeela denboraren kudeaketari eta kontziliazioari dagokien. Denboraren kudeaketa hobetzea zeregin profesional hori aintzatesteko modua izango litzatekeela uste du Zapirainek. Dena den, Martinezek aurrerapausoak sumatu ditu: «Gizonek eta emakumeek baldintza berdinetan lan egiteari esker, genero ikuspegia gero eta gehiago aplikatzen da ikerkuntzan». Plataren ustez, gaur egun generoa ez da oztopoa ikerkuntzan aritzeko, baina ikerketa-jardura amatasunarekin edo zaintzarekin uztartzeko erraztasun gehiago egon beharko liratekeela uste du. Laguntza eta babesa jo ditu funtsezkotzat Gabilondok bide horretan aurrera egiteko: «Hori aldatzea nahi badugu, gauzak erraztu behar dizkiegu interesa duten pertsonei, gure erakundearen ikerkuntzaren kultura pixkanaka-pixkanaka sortzen saiatzeko».

“Euskara lehen hizkuntza gisa erabiltzeak onurak ditu; eraginkorra izateko baliabideak ematen dizkigu”

Miren Mujika Garate Osakidetzako erizainak Euskararen *ARritmia* izeneko lana argitaratu berri du, Zumarragako Ospitalean hizkuntzaren sozializazioa eta genero-sistemaren egituraketa aztertzeke helburuz. Besteak beste, nabarmendu du nahiz eta ikasleek euskarazko terminoak ikasi, lanean gaztelaniazkoak erabiltzeko joera dagoela, eta euskarari prestigio handiago eman behar zaiola.

Nolatan erabaki zenuen lan hau argitaratzea?
Mondragon Unibertsitateko *Euskal kulturgintzaren transmisioa* graduondoa egin nuen, eta proiektu bat egin beharra zegoen. Proiektu hori izan zen lan honen abiapuntua. Lan horretarako izan nuen tutoreak Eusko Jaurlaritzaren Berdintzen beketara aurkeztera animatu ninduen, eta laguntza horrekin proiektu hau egitera. Beka horiek euskara eta generoa dituzte hizpide, eta helburu dute eremu ezberdinetan ikerketak sustatzea. Beraz, emakumea, euskaltzalea eta osasun-langilea naizen aldetik, erabaki nuen ikerketa hori nire lanean egitea. Beka lortu, eta bi urte eman nituen proiektuan barneratuta.

Zein izan zen abiapuntua?
Harrera linguistikoa nola egiten zen ikusi nahi nuen, genero irizpideak txertatuta eta hizkuntza inklusiboaren irizpideak kontuan hartuta. Horrekin batera, euskarak osasun esparruan zein leku duen ere ezagutu nahi nuen. Ikerketa testuinguru konkretu batean dago kokaturik; beraz, esanguratsua zen, ezer baino lehen, azaleratzea datu soziolinguistikoak eta euskaldun kopuruak, ospitaleko pazienteen artean nahiz Goierri Urola-Garaiko ESlak arretea eskaintzen duen herrietan. Bestalde, aztertu nahi izan dut emakumearen gorputza zertarako eta zenbateraino hartu den kontuan osasungintzan. Ezagutu nahi nituen, batetik, paziente gisa gorputz femeninoak pairatutako genero-

-alborapena, eta, bestetik, emakumeak zer paper izan duen langile gisa. Izan ere, ikusten da osasungintza feminizatzen ari bada ere, hierarkia batzuk mantentzen direla, eta oraindik ere botere-harremanak daudela, prestigioari lotutakoak. Hori hala, ikerketa kualitatibo bat egin nuen: lau metodo erabili nituen, informazio iturri bakoitzerako helburu batzuk zehaztu ostean.

Zer lau metodo eta esparru?
Batetik, Erizaintzako lehen mailako ikasleekin *focus group* edo eztabaida talde batzuk egin nituen, haien praktikaldiaren hasieran eta amaieran. Jakin nahi nuena zen ikasi bitartean barneratutako hitz teknikoak eta terminoak erabiltzen ote zituzten ospitaleko testuinguruan

murgiltzen zirenean, eta unibertsitatean ikasitakoa nahikoa ote zen horiei eusteko praktikaldian eta lanean.

Bestetik, elkarrizketa batzuk egin nizkien nolabait estereotipoa betetzen ez duten lau profesionali: gizonezko emagin bat, emakumezko zeladore bat, gizonezko erizain beterano bat eta emakumezko mediku gazte bat. Haien testigantzak bildu nituen, haien bizipenak ezagutzeko. Generoak zeharkatutako botere-harremanak landu nahi nituen gehienbat atal horretan.

Hirugarrenik, behaketen bidez, pazienteei ematen zaizkien errutinazko mezuak aztertu nituen, hau da, harrera bat egitean pazienteari ematen zaizkion azalpenak, jasotzen duen informazioa. Oharra euskaraz ala gaztelaniaz ema-



MIREN MUJIKA GARATE
Erizaina

«KONTZIENTZIAZIOA ZABALTZEAZ BATERA, EUSKARAREN ERABILERAREN ALDEKO PARADIGMA-ALDAKETA BAT BEHAR DUGU»

teak dituen aldaerak eta mezuan genero aldagaiak duen eragina jasotzea zen horren helburua.

Eta, azkenik, dokumentazioaren analisia egin nuen, hain zuzen, Osakidetzak sortzen duen dokumentazioa aztertzeke eta ikusteko hizkuntza inklusiboa erabiltzen ote den, eta zuzentasun aldetik hizkuntza egokia den ala ez.

Zein izan dira ondorio nagusiak?
Ikasleekin hitz egindakoa kontuan hartuta, ondorioztatu dut nahiz eta ikasketa-prozesua euskaraz egin, praktikaldira iristen direnean erabateko aldaketa dagoela gaztelaniarekiko. Onartzen dute ospitalean murgiltzean zaila egiten zaiela ikasitakoari eustea. Izan ere, lanean erabiltzen dituzten terminoetara moldatu behar dute hizkuntza, gehienbat gaizki-ulertuak saihesteko eta baita bertako diskurtso konpartitu baten kide sentitzeko ere. Ikasten dituzten hitz teknikoak haien zat berriak eta aldrebesak edo zailak izaten dira batzuetan, eta konturatzen dira lan munduan gaztelania dagoela zabaldua ospitaleko hizkuntza espezializatuan edo hizkuntza mediko teknikoan. Euskaraz ari direnean, gaztelaniara egin behar izaten dute salto askotan; horrek dakar gaztelaniazko maileguak erabiltzea. Jarrera hori normalizatzen badugu, sekula ez dugu lortuko euskarak prestigioa izatea lan munduan eta osasungintzan.

Testigantzen kasuan, elkarrizketatutako profesionalak ez zuten sentitu sexismoa pairatu zutenik lanbide hori izateagatik, baina, elkarrizketan aurrera egin ahala, ohartu ziren baietz, agian azalpen gehiago eman behar izan zituztela lanbide hori aukeratzekoan, pazienteek gertutasun gehiago edo gutxiago sentitzen zutelako profesionala sexu batekoa edo bestekoa izan...

Bada sexismoa ere behin eta berriz azaldu behar izatea zergatik aukeratu duzun emagina izatea gizonezkoak zaren, adibidez. Gainera, argi geratu zen oraindik ere hierarkia bat dagoela lan egituren, ez dela estruktura-aldaketarik izan.

Bestalde, lan gehiagoko edo ezohiko egoeretan gaztelaniarako joera sumatzen da. Argitu dut: errutinazko mezuak gaztelaniaz irakasten dizkigute normalean, eta ohitu gara pazienteari gaztelaniaz esatera esan beharrekoa; barneratuta daukagu eskema hori. Euskaldun bati berez badaukagu aukera azalpen horiek euskaraz emateko.

Dokumentazioaren analitik atera-tako ondorio nagusia da gaztelaniaz idaztean genero gramatikala aldatu

egiten dela lanbidearen arabera, hau da, medikua esateko *el médico* erabiltzen da maskulinoan, eta erizaina esateko, aldiz, *la enfermera*, femeninoan. Hala, estereotipoa puzten ari gara. Euskarak genero gramatikalk ez duenez, aukera ematen du hizkuntza inklusiboagoa erabiltzeko.

Eta euskarak zer leku dauka prestigioaren kontu horretan?
Paradoxikoa da, baina nahiz eta euskaraz ez jakiteak bigarren mailako profesional bilakatzen zaituen berez, lanean euskarak ez du prestigioarik. Zaila da konturatzea osasun-zerbitzu ona emateko erabiltzailearen hizkuntza erabili behar dela. Euskara bigarren mailan kokatzen dugu prestigioari dagokionez, baina lehen hizkuntza gisa erabiltzeak onurak dakartza, eta komunikazio eraginkorra izateko baliabideak ematen dizkigu. Izan ere, kexak gutxitzen dira, eta elkarrizketa bat izatean gehiago asebetetzen dira bai medikua eta bai pazienteak. Euskaraz aritze hutsak balio batzuk biltzen ditu barnean: maiz, pazienteak poztu egiten dira profesionalak euskaraz dakiela ikustean, eta batasun bat sortzen da, bien arteko elkarrizketan gertutasuna eta erosotasuna ahalbidetu dezakeena.

Zumarraga ingurua eremu euskalduna da, baina azterketa eremu ez hain euskaldun batean eginez gero bestelako ondorioak izango liratekeela uste duzu?
Ez dut uste profesionalak beste jarrera bat izango luketenik. Eskualde honetan paziente nahiko euskaldunak artatzen ditugu, 24 udalerritatik 14 UEMAn baitaude, baina horrek ez du kontzientzia pizten.

Zer falta da, beraz?
Argi eta garbi, kontzientziazioa. Ikusi dugu euskaraz aritzeak onura handiak dituela kalitateari begira, baina orain arte apenas begiratu diogu erabiltzen dugun euskara horren zuzentasunari, eta ikusi dugu, gainera, herrena dela, euskaraz aritzen garenean ere gaztelaniazko hitzak erabiltzen ditugulako. Beraz, kontzientziazioa zabaltzeaz batera, euskararen erabileraren aldeko paradigma aldaketa behar dugu.

Lan honek eraman nau mundu honetan lanean ari diren beste osasun-profesional batzuekin saretzera. Txikitik ari gara kontra egiten, ez baita erraza bide honetatik jotzea, zuretik asko eskatzen duen jarrera bat baita, baina eman dira aurrerapausoak orain arte, eta aurrera goaz.



Ezkerretik eskuinera, Iñaki García, Mari Jose Ezeizabarrena eta Aroa Murciano.

KGNZ, HAUR EUSKALDUNEN HIZKUNTZA-GARAPENAREN JARRAIPENA EGITEKO TRESNA

Haur euskaldunen hizkuntzaren garapen-prozesuaren jarraipena egiteko Komunikazio-Garapena Neurtzeko Zerrenda KGNZ tresna balidatua garatzea lortu dute EHuko ELEBILAB Elebitasunaren Laborategiko kideek. KGNZ ingelesezko bost CDI galdetegi euskal bertsoiak dira. Orotara, bost galdetegi dira (bi luze eta hiru labur), 8-50 hilabete bitarteko haurren hizkuntza-ulermena eta ekoizpena aztertzeko diseinatutakoak, keinu-, hiztegi- eta gramatika-itemak kontuan hartuz.

«AUKERA DAGO NEURKETA BIKOITZAK EGITEKO, ELEBIDUN BATEN KOMUNIKAZIO-GARAPENA BI HIZKUNTZETAN NEURTZEKO BIDEA EMATEN BAITU»

etxeko ohiko hizkuntza den. Kontuan hartu behar da, gainera, haur euskaldunak erdarak ere ari direla ikasten eta horrek eragina duela beren hiztegi eta gramatikaren neurrian; KGNZ haur askoren euskara-gaitasuna neurtzeko «osagarria» dela adierazi du Iñaki Garciak (Burlata, Nafarroa, 1968): «Aprobetxatuz CDI tresnetako batzuk beste hizkuntza batzuetara ere egokituta dagoela, aukera dago neurketa bikoitzak egiteko, elebidun baten komunikazio-garapena bi hizkuntzetan neurtzeko bidea ematen baitu».

Orain artean jasotako 4.000 galdetegi ingururen pertzentilak jadanik kalkulatu daude. Andoni Barreñak koordinatutako lantaldea 2000. urtean osatu zuten, 2008an argitaratu zuten lehen eskuliburua eta bi galdetegi luzeak. 2011n eta 2014an argitaratu zituzten galdetegi laburrak eta pertzentilak. Lagina zabalduz pertzentil horien sendotasuna hobea izango dela helarazi du Mari Jose Ezeizabarrenak (Tolosa, 1964), datu gehiago biltzea dute helburu, eta 2024an dute argitaratzekoa hurrengo eskuliburua. Lagina zabaltzearekin datuak aldatzen doazela ikusi dute: «zenbat eta lagin handiagoa izan, orduan eta irudi osatuagoa eta emaitza fidagarriagoak» edukiko dituztela azaldu du.

Aroa Murcianok azaldu bezala (Zumaia, 1987), haur-eskoletara jo dute, eta langileen eta gurasoen laguntzari esker lortu dute galdetegiak biltzea. Orain artean ikusi dute 14 hilabetetik aurrera oso garapen ezberdinak dituztela inguruko hizkuntza batez ere euskara duten haurrek, euskara eta erdara antzera dutenek eta euskara gutxi entzuten dutenek. Garciak argi utzi du: «adinak baino eragin handiagoa dauka haurrak jaso duen inputak, eta hori kontuan hartu beharrekoa da».

KOMUNIKAZIO-MAILAKO ARAZOAK
Galdetegiak betez, haurren komunikatzeko trebetasuna normaltasunaren barruan garatzen ari den neur daite-

ke. Jakina da komunikatzeko orduan arazoak erakusten dituzten 6tik gora urteko haur asko beren adinkideak baino beranduago hasiak direla hizketan. CDI eta KGNZ tresnen pertzentil taulek aukera ematen dute neurri batean aurreikusteko hizkuntza garapeneko atzerapena izango duen haurra. Ezeizabarrenak dioenez, KGNZ-ak garapen-atzerapen-zantzuak antzemateko baliagarria da «haurren portaera linguistikoetan arreta jartzeko, eta atzerapena susmatuz gero, hizkuntza-garapenaren behaketa jarraitua zein esku-hartze goiztiarra aktibatzeko».

Alderdi komunikatiboarekin zerikusia duten balizko arazoak garaiz detekta daitezke KGNZren bidez. Zentzu prebentibo batean egiten dio ekarpena haurren garapen komunikatiboaren azterketari, Garciak dioen bezala: «Badira hamabost minuturen bueltan bete daitezkeen galdetegi laburrak. Beste aldagai batzuk neurtzeko testak bezala, KGNZ euskarazko komunikazio-garapena aztertzeko da, lehenago ez zegoena». Elkarrizketatutakoek azpimarratu dute ez dela esku-hartzeari begirako tresna bat, diagnosia helburu duena baizik.

Murcianoren arabera, KGNZ galdegia betetzeak berak gurasoei kontzientzia hartzen laguntzen die: «esan izan digute badela kontzientziatzeko ariketa bat, haurrak zer dakien edo zer ez kontuan hartzen hasteko, askotan ez baitute tarterik horren inguruan pentsatzeko, eta tresnak berak ematen die informazioa». Albo-ondorio positibotzat jotzen du Ezeizabarrenak hori: «hizkuntzaren gainera interesa pizten bada, gurasoek haurraren hizkuntza-trebeziak garatzen lagunduko dute, haurrari hizkuntza entzuteko eta erabiltzeko aukera sortuaz. Zenbat eta aukera gehiago izan, orduan eta azkarrago garatzen dute hizkuntza».

Aurkezpen ugari egin dituzte KGNZ tresnen eta haiekin lortutako emaitzak aurkeztuz. Euskaraz egindakoen artean daude: Baionan, 2020an, Hizkuntzalari-tza Klinikoko I. Jardunaldian; Atarrabian (Nafarroa), 2022an, Osasungoa Euskalduntzeko Erakundearen 31. Osasun Biltzarrean; Iurretan (Bizkaia), 2024an, UEUren XVI. Pediatria Topaketetan. Datorren irailaren 20-21ean, Lesakan (Nafarroa) izango dira, *Hizkuntza-nahasmenduak haur elebidunen garapenean: ebaluazio eta esku-hartzea* ikastaroan aurkeztuko dituzte. Azkenaldian «garai berrietara egokitzeko» lanean ari direla ere aurreratu dute, galdetegi digitalak diseinatzeko prozesuan Elhuyar Fundazioarekin elkarlanean.

EGUZKIAK ONURAK DITU,BAITA KALTEAK ERE

Osakidetzaren Zallako Osasun Zentroko Dermatologiako erizaintza-taldeak eguzkia hartzearen onurei eta arriskuei buruzko hitzaldi bat eman du herriko kultur etxean, baita osasuntsu egoteko gako batzuk azaldu ere. Marian Rubio Carbajo eta Izaskun Diaz Junguitu erizainak aritu ziren hizlari lanetan.

Eguzkia da uda sasoiko protagonista. Denak egoten dira hari adi, hura noiz azalduko zain plan bat edo beste bat egiteko: hondartzara joateko, mendira, igerilekura, oporretara... Eta, bide batez, beltzaran egon ahal izateko, nork bere burua ederrago ikus dezan. Alabaina, arrisku asko daude horren guztiaren atzean, ezjakintasun handia eguzkiak azalean sor ditzakeen kalteen inguruan. Hori ikusirik, Zallako Osasun Zentroko Dermatologiako erizaintza-taldeak informazio-bilera bat antolatu zuen udalerriko kultur etxean. Zehazki, eguzkiak osasunean dituen onurak azaltzeaz gain, larruazalean gaixotasunik ez izateko hartu beharreko neurriei buruz jardun zuten.

Marian Rubio Carbajo eta Izaskun Diaz Junguitu erizainak arduratu ziren herritarrei azalpenak emateaz. Orain dela bi urte eman zuten aurrenekoz eguzkia zentzuz hartzeari buruzko hitzaldia, eta, harrera ona izan zuela ikusita, aurreko berriro egitea erabaki zuten. Haiek izan ziren ahotsa, baina ezin

aipatu gabe utzi prestaketa lanetan orain arte bidelagun izan dituzten profesionalak: Bea Laiz Orizaola, aurreko erretiratu den lankide espezializatua; Eva Diez Lopez, lankide espezializatua eta Zallako osasun zentroko erizaintza-ko ikuskatzailea; eta Belen Navajas Pinedo, dermatologoa. Izan ere, osasun zentro horretan, erizaintzako kontsulta propio bat daukate dermatologiarekin lotutako kasuetarako, eta horregatik aritzen dira elkarlanean erizainak eta dermatologoak.

Helburu argia zuen, beraz, tailerrak: herritarrek eguzkiak sor ditzakeen arriskuez kontzientziatzea. Lehenik eta behin, entzuleei azaldu zieten larruazala organo bat dela, organismoaren hantura, eta haren funtzio nagusia dela barrera gisa jardutea, hau da, substantzia kimiko kaltegarriak, alergenoak eta mikroorganismo patogenoak gorputz barrura igarotzea saihestea, baita deshidratazioa ekiditea ere. Baina larruazala kaltetuz gero, gorputza babesik gabe geratzen da, eta gaixotasunak agertu daitezke.

Eguzkiak bidaltzen dituen izpi ultramoreak dira sarritan larruazaleko kalte horien erantzule. Hiru motatakoak izan daitezke: UVA, UVB eta UVC motatakoak. Bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina Rubiok eta Diazek nabarmendu dute hiru mota horietatik UVCkoak direla kaltegarrienak, arriskutsuenak. Halaber, UVA motako izpiek hodeiak zeharkatzen dituztenez, bai eta kristala eta arropa fina ere, larruazalean gehiago sakontzen dute, eta zimurak nahiz orbanak eragiten dituzte. Solariuma aipatu dute adibide gisa, mota horretako izpiak jasotzen baitituzte bezeroek halakoetan.

ITZALA EZ DA NAHIKOA
Frogatuta dago eguzkiak onurak ere badi-tuela osasunean: D bitamina sintetizatzen du; propietate terapeutikoak ditu dermatologiarekin lotutako gaixotasun batzuetan, hanturaren aurkako eragina duelako: psoriasis, aknea, dermatitis atopikoa...; globulu zuria ugartzen ditu; izpi ultramoreek melatoninaren ekoizpena erregulatzen dute; eta, serotoninara eragotzen duenez, onurak ditu aldatzen.



«BI EDO HIRU ORDUAN BEHIN EMAN BEHAR DA KREMA, GUTXIENEZ 30EKO BABESA DUENA»
Izaskun Diaz Junguitu

Dena den, eguzkia behar bezainbesteko babesarekin hartzea da gakoa, erizainen arabera. Hain zuzen, bi edo hiru orduan behin eman behar da krema, gutxienez 30eko babes duena, eta, uretara sartuz gero, adibidez, berriro eman behar da. Zenbat eman argitu du Diazek: «Aldi bakoitzean 35 gramo eman behar dira. Krema pote batek 250 gramo baldin baditu, kalkulatu dugu zazpi alditan emateko adina datorrela pote bakoitzean». Rubiok azpimarratu du inoiz ez dela nahikoa: «Bizi garen tokian, urte osoan eman behar dugu eguzkitarako krema. Beti azaltzen diegu entzuleei eta pazientei inoiz ezin dela guztiz babestu, babes totala ez dela existitzen, eta izpi ultramoreek etengabe ematen digutela: paseatzen ari garenean, baratzetan ari garenean, terraza batean, eguzkitako baten azpian...». Izan ere, azaldu dute-

nez, askok uste dute itzaletan egotearekin nahikoa dela, hala nola hondartzara joatean eguzkitakoaren azpian jartzea, parkera joatean arbola baten azpian egotea; eta pentsatzen dute autoz bidaiatzean kristalak babestu egiten duela. Baina ez da hala. Askotan ahaztu egiten den gorputzeko atal bat ere aipatu dute: belarriak. «Ez daukagu belarrietan krema emateko ohiturarik, eta hor ere ematen digu eguzkiak».

GAZTEENGANA IRISTEKO ZAILTASUNAK
Eguzkitako krema emateaz gainera, erizainek adierazi dute barrutik zaintzea ere ezinbestekoa dela behar bezala babesteko. «Ura ez ezik, edari isotonikoak kontsumitzea ere komeni da, ura nahiz elektrolitoak berreskuratzeko, izerdiaren ondorioz galdu egiten baitira». Ura limonadarekin, zukuekin edo frutekin txandakatu daitekeela esan dute, baina ez alkoholarekin, azken horrek deshidratatu egiten baitu.

Beste zenbait gako ere eman dituzte: «Adibidez, zure itzala zenbat eta luze-

«ZURE ITZALA ZENBAT ETA LUZEAGOA IZAN, ORDUAN ETA KALTE GUTXIAGO EGITEN ARI ZAIZU EGUZKIA; IA EZ BADUZU ITZALIK SORTZEN, BETE-BETEAN JOTZEN DIZULAKO DA»
Marian Rubio Carbajo

goa izan, orduan eta kalte gutxiago egiten ari zaizu eguzkia; kontrara, ia ez baduzu itzalik sortzen, horrek esan nahi du bete-betean jotzen dizula», azaldu du Rubiok. Informazio asko zabaldu arren, uste dute kontzientziatzea dela gako nagusia, eta, horregatik, edozein kontsulta baliatzen dutela larruazala babesteak duen garrantzia azaltzeko, helduei nahiz gazteei. Halere, diote helduak izan ohi direla gehienbat hitzaldietara joaten direnak, eta uste dute gazteei hau dena helaraztea dela erronka nagusia. Mezua argia da: gazteek nahiz helduek har dezaten eguzkia uda sasoian, baina zentzuz eta kontuz.

Adimen urritasuna

Sexologooi leku askotatik deitzen digute hitzaldiak edota ikastaroak emateko. Gehienen izenburua, *Sexualitatea eta...* gazteak, drogak, menopausia, GIBa, adimen urritasuna. Horrelakoetan, gogora etortzen zaigun lehen gauza hau izaten da: badakigu denon sexualitatea zertan datzan, eta falta zaigun informazioa talde berezi batzuen gainekoa da. Horretarako, adituak.

Baina aspaldian konturatu ginen, batetik, sexualitateaz uste dugun baino gutxiago dakigula, gehienetan daukagun informazioa nahiko nahasia dela eta informazio gehiena gure esperientzietan baino ez dagoela oinarrituta; are gehiago, erraz proiektatzen dugula geure burua besteen esperientziak epaitu edo estimatzeko. Bestetik, desberdintasunari buruz dauzkagun aurreiritzi ezkorrek eta iritzi partzialek berez kutsa dezaketela «berezitasunari» buruzko edozein informazio.

Esan genezake gaur egun profesionalongana jotzeko dagoen joera eta sexualitateari lotuta dauden hainbat gairi buruzko informazioa, aholkularitza, heziketa eta ikerkuntza-grinak inoiz baino gehiago mugitzen dituela ere gurea ikeritzeko, jakiteko, azaltzeko...

Gaur, adimen urritasuna duten lagunak ekarriko ditugu, emakume eta gizon horien berezitasun batzuk, haien bizipenak hobeto ulertzeko.

Adimen urritasunak haxe adierazten du: pertsonak ikasteko daukaten gaitasunik eza. Ikasten dute, baina, gutxiago edo motelago, urritasunaren arabera.

Askotan pentsatu ohi dugu adimen urritasuna duten emakumeen eta gizonen sexualitatea kontrolezina dela, oso bizia dela, arriskuz beterik dagoela...

Hasteko, esan beharra dago jaio aurretiko sexuazio prozesuan adimen urritasuna dutenen eta ez dutenen artean ez dela zertan desberdintasunik izan. Bestelako arazorik ez bada, denon prozesua antzekoa da, bakoitzaren ñabardurak gorabehera.

Sexualitatearen bizipenetan nahiko antzean gabiltza. Denok igarotzen ditugu etapak: haurtzarora, pubertarora, nerabezarora, gaztarora... Gure gorputzak berdin funtzionatzen du. Gure emozioak—beldurra, lotsa, tristezia, erakarpina, desioa, kitzikapena—denon baitan daude. Baina, beharbada, erotikaren alorrean bestelako arazoekin egiten dugu topo.

Gure maitatzeko, erakartzeko, sedutzeko, erotizatzeko... erak ikasi egiten ditugu. Norberak bere gorputza ikertuz, beste batzuk ikusten eta imitatzen —Internet, liburuak, filmak, errealitatea...—, beste batzuekin jolasean, esperientziak trukatzuz, eskolan, etxean...

Adimen urritasuna dutenek, euren ikasteko gaitasunik eza albo batera utzita, berezitasun bat dute: ia eduki erotikotik

edo sexual guztiak debekatuak dituzte. Ontzat hartu dugu ez dutela inolako sexualitatearik, erotikarik... Oso zaila da etxean, tailerretan edo eskoletan sexuari, sexualitateari eta erotikari lotutako gaiak aipatzea, azaltzea, jorratzea... Beraz, euren erotika kanporatzeko gaitasunik eza oso nabarmena da, gehienetan traketsa; ez da batere hezitzailea. Haien sexualitatea ukatuz, emakume eta gizon horiek «babestu nahian», ohikoa izan da edozein keinu erotikotik ezabatzea. Bai bere gorputzarekin jolastea eta gozatzeta, bai beste mutil edo neskekiko erakarpina adieraztea.

Jokaera horiek ez dute batere lagundu gizarteratze prozesuan. Ezta pertsona moduan hazteko prozesuan ere. Kontrakoa, euren erotika, nahi eta nahi ez, ahal duten moduan garatuko dute; bizitza aurrera doa, barrenak berea egingo du. Baina, ikasketa prozesuan hain gutxi irakatsi diegu, eta hain gutxi utzi diegu diren moduan azaltzen, ez da harritzekoa izango arazoak agertzea. Alde batetik, ez dakitelako nola kudeatu euren maitasuna, lotsa, desioa, eszitazioa, erakarpina, amorrua... Eta, beste alde batetik, ez dutelako inolako informaziozko gaixotasunak saihesteko, haurdun ez geratzeko...

Tamalez, sexologoak, agertzekotan, horrelako kasu korapilatsuetan agertzen gara: euren jokaerak delituzko ekin-tza bihurtu direnean, abusatua izan direnean, haurdun geratu direnean edo iskanbilak sortu direnean.

Oraindik, lana daukagu egiteko denon artean. Baina, behintzat onar dezagun denok garela sexudunak, sexualak, erotikokoak... ez soilik paperetan, teorian, curriculum proiektuetan, egoitza bateko estatutuetan, eskubide unibertsaletan... Gusturago ikusiko ditugulako bi gazte goxo musukatzen kalean, parke batean bere zakilari eutsi ezinik dagoen gazte bat baino.

«SEXUALITATEAREN BIZIPENETAN, DENOK IGAROTZEN DITUGU ETAPAK»

HIZKI-ZOPA (Bagabiga & Dueso)

Aurki itzazu hizki zopa honetan zortzi fruta izen. Hitzak norabide guztietan azaltzen dira.

P	A	E	T	A	N	E	E	U	S
K	Z	A	Z	T	U	A	R	R	A
O	E	I	L	U	K	A	R	E	D
A	N	A	A	P	Z	X	E	N	A
F	A	I	L	A	J	A	M	O	X
B	R	S	Z	U	S	Z	O	O	P
X	I	L	O	H	P	K	L	A	A
S	O	Z	G	U	B	I	A	L	T
E	A	O	D	N	B	I	T	O	A
D	H	K	E	A	Z	A	X	R	T
E	L	A	Z	I	H	R	A	X	A
T	O	M	A	T	E	A	L	A	R

e ESTILO LIBURUAN BARNA

BIRFORMULATU KALKO OKER HAUEK

- a) El Jefe de Unidad de Atención primaria ha creado un nuevo informe.
* Lehen Mailako Arretako unitateburuak txosten berria sortu du.
- b) La fotocopidora que necesitan en el hospital cuesta 5 millones.
* Ospitalean behar duten fotokopiagailuak 5 milioi kostatzen du.
- c) Varios trabajadores participaron en la reunion. Después de eso, tomaron un cafe.
* Hainbat langilek parte hartu zuten bileran. Hori eta gero, kafea hartzera joan ziren.



Adibide eta azalpen gehiago estilo liburuan bertan.

ERANTZUNAK

Erantzuna
a) Txostena sortu du. b) Kostatzen da/balio du. c) Ondoren, horren ostean... (Ikusi! Osakidetza Estilo Liburua > Kalko okerrak, 50. orria)

Hizki-zopa
Urza, tomate, oliba, patata, tipula, erremolatxa, azenarioa, arrautza.

ZIBERSEGURTASUNA

EGUN ON!

BIDAL DIEZADAKEZU ESKATU NIZUN INFORMAZIOA?

ORAINXE ESANGO DIZUT...

NIRE AGIRI-DATUAK SARTUKO DITUT BI URRATSEKO EGIAZTAPENAREKIN...

Sartu egiaztapenaren bigarren urratsa

KITTO! UTZI DIT SARTZEN.

SHAREPOINTEAN DAUKAZU PARTEKATUTAI HORRELA SEGURUAGOA DA AGIRIAK PARTEKATZEA!

Sarbide zuzena 2FArekin

ESKERRIK ASKO!

KAIKO BERRIZ!

ENTZUN DUZU AGIRI-DATUAK LAPURTZEN ARI DIRELA? LANKIDE BATEN PASAHITZA ASMATU DUTE!

HARA!

ESKERRAK BI URRATSEKO EGIAZTAPENA ERABILTZEN DUDAN, OSAKIDETZAREN ZIBERSEGURTASUNERAKO AHOJKUEI KASU EGITEN DIEDANETIK.

ETA ZERTAN LAGUNTZEN DIZU BI URRATSEKO EGIAZTAPENAK?

HURA ERABILTA, ZAILAGOA DA KANPOTIK NORBERE KONTURA SARTZEA, EZ BAITA NAHIKOA PASAHITZA JAKITEA; BIGARREN SEGURTASUN GERUZA ZEIN DEN ERE ASMATU BEHAR DUKETE.

HORI JAKINDA, NIK ERE ERABILIKO DUT AURZERANTZEAN! ZIBERSEGURTASUNA DENON ARDURA DA!

ESKERRIK ASKO!

EMAN ODOLA, EMAN BIZITZA

Igo
odol-ematearen
olatura!

Osakidetzak eta Euskadiko Odol Emaileen Elkarteak informazio hau jartzen dute zure eskura, APParen bidez:

- Odola emateko guneak
- Odol-emaileen historia (ohiko emailea bazara)
- Odol-taldea eta Rh-a
- Berriro noiz eman dezakezun



Available on the
App Store

Get it on
Google play



tiritatxo

Pediatraren aholkuak haurrentzat eta familientzat

26 2024 • UZTAILA



HIZKUNTZA

tiitatxoren aholkuak

HIZKUNTZA


IREKI BEGIAK ETA BELARRIAK, BETI DAGO ETA ZER IKASIA. ZIRRIKITU GUZTIENTATIK SARTZEN ZAIZKIGU HIZKUNTZAK GORPUTZEAN. BATZUETAN, ZORITXARREZ, ELKARREKIN BORROKAN ERE BADABILTZA; NORGEHIAGOKAN. EZ OTE DAGO GUZTIONTZAT LEKURIK? MAITE DUGUN HORI ZAITZEKO ERE BALIO DU HIZKUNTZAK, ORDEA, BORROKARAKO BEZAINBESTE.

ZEIN HIZKUNTZA IKASI DUZU ZUK LEHENIK? HORREK BALDINTZATU DEZAKE ONDOREN IKASIKO DITUZUNAK ERRAZ IKASTEA. ADIBIDEZ, INDIAKO HINDIA IKASTEA AKASO ERRAZAGOA IZANGO ZAIZU INGELESA IKASTEA BAINO.

Badirudi gizakion lehen hizkuntzak kantua eta musika izan zirela... Gogoko duzu kantatzea eta musikarekin gozatzeta, lehen gizaki haien moduan?

HIZKUNTZA PIXKANAKA ETA ETENGABE IKASTEN DEN ZERBAIT DA. MATRIUSKA PANPINEN MODUAN, TXIKI BAT HANDIAGO BATEAN BILDU, ETA GERO HANDIAGO BATEAN, ETA GERO ASKOZ HANDIAGO BATEAN... INFINITURAINO LUZATU DAITEZKEEN ESALDI LUZEAK SORTU ARTE!

KUKU, KUKU! PIUI! KERREK-KERREK! KRAAAA! ANIMALIEK ERE BADUTE EUREN HIZKUNTZA. ETA ZUK, BADAIZU ANIMALIEKIN HITZ EGITEN?



DENBORA-PASAK

MARGOAK ATERA!

Koloreztatu goxoki hauek, nahi dituzuen koloreak erabiliz.



iRRiA
ALDIZKARIA



Irrien Lagunon edo iRRiA aldizkariaren
inguruko informazio gehiago nahi izanez gero,
deitu 902 820 806 telefonora edo
bisitatu www.irrienlagunak.eus webgunea.